



JOSU SANJURJO ALZURI

«Pauso ttiki bat eman dut bertsokeran, eta hori erakutsi nahi dut»

Lesaka, 1993. Laugarren txapelketa du. Iaz probatu zuen lehenbizikoz finala. Bertso irakaslea da, Saats Karasatorre bezala. Kosta zaio lehiarako mentalizatzea. Hilabete zailak izan dira berarentzat, baina jada ongi dago.

Azken finalaurrekoa bere herrian jokatu zuen, hainbertzetan joaten den frontoian, sarrera guztiak salduta zeuden eta jakin-mina zegoen finalistak ezagutzeko. Bere buruari jarrita zeukan presiotxo hori, berriz sailkatzeko. Gainera, hagitzez gehiago prestatu da aurrekoan baino, eta hori erakutsi nahi zuen. Hortaz, ez zitzaion erraza egin gozatzea.

Urduritasunez bizitu zuen hasiera eta ofizio pare batean nahasi egin zen gaia bere alde-
ra ulertu zuelako. Finalean ze-

la jakitean «poz handia, arin-
dua» hartu zuen.

Lasaiago zaude?

Hagitzez. Landutakoa guztiz ateratzeko eta egin nahi dudana egiteko moduan izanen naizela uste dut. Aurreko finalean bizirautera atera nintzen, urduri, lotuta kantatu nuen. Orain pauso ttiki bat eman dut prestakuntzan eta bertsokeran, eta hori erakutsi nahi dut.

Orain arteko bidean zein ariketak ase zaitu?

Gusturen zortziko handiarekin gelditu naiz, gehien landu dudana ariketa da, ustez okerre-na egiten nuelako, eta hor lortu ditut emaitzarik hoberenak, nahiz eta beti tokatu zaidan hastea eta lehendabiziko bertsoa joan zaidan pixka bat, urduritasunagatik. Gero, behin

pertsonaian edo paperean sartuta, ongi moldatu naiz. Bakarkakoa ere landu dut, hor sentitzen naiz eroso, nire esparruan nagoelako.

Lesakan arriskatu egin zinen ganbaran.

Hala erran dit jendeak, doinu zaila hartu nuela, baina ni eroso aritu nintzen. Gogoko dut bertsoa ikusgarri egitea eta ikusgarritasun horrek mezua ematea; nahiago dut plater bat deskribatzea platera goxoa dagoela erratea baino, eta hori ahalbidetzen du ‘Izarren Hautsa’ doinuak.

Eta beste aldean, penarik gelditu zaizu?

Anitz. 30 urte egiten nituen egunean izan zen Leitzako saioa. Nahasita joan nintzen, 30 urteak bereziak dira niretzat eta ezin kokatuz ibili nintzen, saioa hagitx arraro joan zitzaidan, zentratu gabe, nire laurdena ematen. Lesakan, berdin. Lagunak eta familia nituen hor. Nahiago izaten dut publiko neutro bat ezagutzen ez dudana, hala, sorpresa ematen baduzu, positiboa da. Nahi gabe anitz begiratzen dut publikora, biluzik zaude eta erreazioak ikusten dituzu; lagun bat sufritzen ari dela iruditzen bazait nire buruari galdetzen diot ongi ote noan, gaizki...

Ofizioetan askoz hobeki egiten ahal dudala uste dut, zentratuta eta aske egonda; hobere-na emateko dut. Ehuneko ehun aske kantatu ez izanaren arantza dut.

Zer diozu publikoaz?

Txapelketa hau izaten ari da goiko punta altuena duena Nafarroan. Badira hautagai batzuk txapela irabazteko, eta horrek sortzen du morbo edo

interes puntu hori. Gero eta interes handiagoa sortzen du txapelketak. Duela urte batzuk pentsaezina zen finalaurreko bat 600 pertsonaren aurrean egitea, eta sarrera gehiago baziren erosi izanen ziren. Horri erantzun beharra diogu.

Txapelketak interes gehiago pizten du lehia aldetik bertso aldetik baino. Bertsolari berdinek saio hori kantatuko bage-nu Lesakako frontoian igande arratsalde batean 40 lagun bilduko lirateke. Lehiaren interesa baliatu behar da jendea animatu dadin bertsotara eta mundu polit honetara. Hori sumatzen dut haurrekin. “Irabazi duzu?” galdetzen dute, ez zer moduz nagoen edo zer abestu dudana. Ikusi nahi dute-na da puntuazio taula, ez bertsoaldi bat, haurrek eta, noski, helduek. Interes handia sortzen duen egitasmoa da lehia-bertsoa, bertze alde ez hain justu horiekin.

Txapela hurbil ikusten duzu?

Badakit ariketa bat hagitx-hagitx ongi egiten badut eman dezakedala maila altu samar bat, baina kostatzen zait bost ariketatan maila hori mantentzea eta puntuazioetan hori nabaritzen da. Nire helburua aurrerapauso ttiki bat ematea da, ez dut pentsatzen ere txapelean, ez dut hurbil ikusten eta ez nau kezkatzen. Gehiago pozten nau ariketa bat ongi egiten dudanean hor goikoen mailan egiteak ariketa hori.

Finala inflexio puntu bat da Nafarroako bertsogintzan eta gustatuko litzaidake talde kohesionatu bat egitea. Irabazi behar duenak irabaz dezala, baina ez dadila izan protagonista bakarra, denok utzi dezakegu gure puntua, ea denok horrela egiten dugun, ikuski-zun polit bat osatzeko.